

Hugo Silveria eta Naldo Gomes, aurtengo Kultur Kale Zikloari agur esateko.- Lasarte-Oriako Udalak eta Xpressionk Kultur Elkar-teak elkarlanean antolaturiko Kultur Kale Zikloaren baitan, larunbat iluntzean izan zen aurtengo edizioako azkeneko musika emanaldia. Hugo Silveira eta Naldo Gomes musikari brasildarrek elkarrekin eskainitako kontzertuak agurtu zuen aurtengo egitaraua. Oraingoan, Kultur Kale Zikloko zazpigarren kontzertua, herriko Atso-bakar auzoan egin zen. Iluntzeko 20:00etan agertu ziren eszenatokira bi musikariak eta kutsu brasildarreko hainbat doinu eskaini zizkieten bertaratutako ikusleei; Pop, rock, soul eta funk estiloko abestiak entzun ahal izan ziren bertan eta giro bikaina sumatu zen emanaldiak iraun bitartean. Kultur Kale Zikloa ekimena, herriko kultura ekitaldiak deszentralizatzeko asmoarekin antolaturiko ekimena izan da. Uztailean eman zitzaion hasiera eta orduaz geroztik, udara osoan izan dira musika emanaldiak Lasarte-Orian. Herriko hainbat auzoetan ikusi ahal izan dira kontzertuak; Orian, Zumaburur, Tximistarreta parkean eta Atso-bakarren, besteak beste.

3 IKASTAROA

Jantzi tradizionala egiteko saioak urrian eta azaroan

Euskal jantzi tradizionala norberak egiteko aukera eskaintzen du Ttakun Kultur elkarteak urrian eta azaroan antolatu dituen bi ikastaroe-tan. Urtero ikastaro arrakstasua da eta ikasle fidelak ditu, baina gazte jendea eta gizonak ere honetan parte hartzea da antolatzaileen aurtengo helburua.

4 JAIK

Guadalupeko Ama Birjinaren festa asteburua

Irailaren zortzia Guadalupeko ama birginaren eguna izanik, Lasarte-Oriako 'Virgen de Guadalupe' elkarteak, ekin-tza ugariz beteriko asteburua antolatu zuen. Ostiralean hasi eta igandera bitartean, gustu eta adin guztientzako ekin-tzez gozatzeko aukera izan zen eta giro ezin hobean igaro zituzten hiru egunak.



5 EUSKARA

Zure euskara hobetu nahi duzu, izan zaitetz Solaskide

Ttakun Kultur elkarteak Topagunarekin batera Solaskide programa antolatzen du. Honen bitartez euskara ikasi ari den edo bere euskara hobetu nahi duten herritarrei mintza praktika egiteko aukera eskaintzea da, baita hauen bide lagun izatea ere. Urriaren amaiera arte izena eman dezakete interesatuek.

Irailaren 1etik aurrera,
Matrikulazioa Zabalik

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea, 17, behea
20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63 - lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es

aek

euskara praktikoa

100%
AFEKTIBO

Eman izena



HAUTESKUNDEAK



Alderdi politikoei ostiralean eman zioten hasiera hauteskunde kanpainari. Irudian, EAJ alderdiko kideak.



Jesus Zaballos alkatea, larrosak banatzen aritu zen, larunbat iluntzean, alderdiko kideekin batera.

Eusko Legebiltzarra osatzeko bozka bila

Zumaburu ikastetxeko hauteskunde-mahaiak Biyak Bat elkartearekin izango dira.

Irailaren 25ean, Eusko Legebiltzarreko kideak aukeratu dituzte herritarrek. Hori dela eta, ostiralean kanpaina hasi zuten alderdi guztiek eta bi aste hauetan zehar, herritarren bozka eskatzeko ekintzak egingo dituzte herrian.

Goiztiarrenak EHBilduko kideak izan ziren. Osteguna arratsaldean, Kale Nagusiko erdiguneko geltoki ondoan, pintxo dastatu, Areatzako ekitaldi

ikusita eta musikaz gozatu ahal izan zuten.

Gauerdian, beste alderdien antzera, kartelak itsatsi zituzten zegozkien eremuetan.

Era honetara, irailaren 23ra arte, alderdiek herritarren bozka bereganatzen saiatuko dira. Asteazkenetan, alderdi ezberdinak azokan izango dira noski. Baina beste motako ekintzak ere izango dira.

Hauteskunde-mahaiak

Hau guztiaz gain, Zumaburu ikastetxea segurtasun arazoak

itxita dagoenez, berta, kokatzen ziren 7. eta 8. ataletako hauteskunde-mahaiak lekuz aldatuko direla jakitera eman du Lasarte-Oriako Udalak.

Era honetara, irailaren 25ean hauteskunde-mahai horietako kide direnek edo bertan bozkatu behar duten herritarrek Biyak Bat Jubilatuen Elkartera joan beharko dute.

Aldaketak hurrengo atari hauetan erroldatuta dauden pertsonen eragiten die: Erribera kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11 zenbakiak; Zumaburu kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14 eta 16 zenbakiak; Andapa kalea 1 zenbakia; Ganbo 1 zenbakia; Kale Nagusia 32, 34, 36, 38, 42, 44, 46, 60 eta 70 zenbakiak eta Ola kalea 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12 eta 14.

Albokaren ikasturte berria abian

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatza irailaren 5ean hasi zen lanean. 2016-2017 ikasturte honetako lehenengo saioa motza izan zen, ikasturteko erronkei buruz hitz egin, entsegu txikia egin eta mokatutxo bat egin zutelako lagun artean.

Hala ere, gaurtik eta urrira bitartean, lehenengo hitzordu garrantzitsua prestatzen hasiko da taldea, Euskararen Maratoia. Alboka abesbatzak, Erketz eta Zero Setterekin batera igande gaueko azken orduak alaituko baititu.

Honetaz gain, urrian Logroñoeko Orfeoien bisita jasoko du taldeak. Errioxako abesbatzak kontzertua eskainiko du urriaren batean, Ama



Albokako kideen ikasturteko lehenengo entseguaren irudia.

Brigitarren komentuan. Egitarau polita eta anitza aurkeztuko duela aurreratu dute.

Azkenik, abesbatzak herritarrek taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu. Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan

20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entseguetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaabesbatza.com helbidera idatz daiteke.

Gaztelekuko nerabeen zerbitzua lehiaketara

Udalak lizitazioa atara du Nerabeentzako Zerbitzu Polibalentean, 77.266 euroko zenbatekoan. "NZPak erreferentziako zerbitzu publiko bihurtu nahi du".

Eskaintza arreta ematen dien gazteen premietan nahiz eskarrietan oinarritzen da. Programazioa nerabeen intereseko gaiekin nahiz nerabeek egindako proposamenekin hornituko da, bai halaber hezitzaile-taldeak zerbitzura eta lehendik definitutako helburuak lortzeko ezartzen dituen proiektuekin.

NZPa Lasarte-Oriako 11tik 17ra urteko gazteei zuzendua dago, eta profil desberdinetako nerabeek parte hartzea nahi da.

Erabiltzaileen dibertsitatea


bilatuko da, ez bakarrik adinari dagokionez, baita jatorriari, ikastetxeari, sexuari eta abarri dagokionez ere. Eta bertara joaten ez diren nerabeek ere arduratuko da.

Enpresek 15 egun dituzte Gipuzkoako aldirikari ofizialean argitaratu denetik beren proposamenak aurkezteko. Irizpideak eta xehetasunak deialdian bertan zehazten dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, pertsona eta enpresa interesatuek dokumentazioa jaso dezakete Manuel Lekuona kultur etxean, 943 376 181 telefonora deituz, e-mail bat kultura@lasarte-oria.eus helbidera bidaliz edo kontratatzailearen profilean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

IKASTAROA

Jantzi tradizionalen ikastaroa

Urrian eta azaroan egingo diren bi ikastaroetan izena emateko aukera dago

Euskal Jantzi tradizionalen ikastaroa antolatu du Ttakunek urtero bezala urrian eta azaroan. Aurtengoan ez da Euskal Jantzi egingo gurean hortaz, Santo Tomaserako jantzia garaiz presatzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Antolatzaileek bereziki herritar gazteak honetan parte hartzera animatu nahi dituzte.

TXINTXARRI

Urteroko hitzordua bihurtu da euskal jantzi tradizionalen ikastaroa. Ohi bezala, urrian eta azaroan, ikastaroa bi txandatan egiteko aukera eskaintzen du Ttakunek.

Hilabete hauetako astearte eta ostegunetan izango da hitzordua 15:30etik 17:30era bietan. Emakumeen zentroa egiten da ikastaroa eta Jone Artolak gidatzen du.

Urte asko dira Ttakunek ikastaro hau antolatzen duela. Parte hartzaile fidelak ere baditu baina antolatzaileek, hauetaz gain, jende gaztea erakarri nahi dute.

Ttakuneko Naiara Mujikak azaltzen duenez, oso polita da ikasleen aurrerapenak eta lanak saiotik saiora ikustea. "Orain arteko parte hartzaile gehienak josten moldatu izan dira baina egon dira ere botoi bat justu-justu josten zekitenak".

Ikastaroa bukatzean, "denek jantzi dotoreak era-

kusten dituzte". Mujikak azpimarratzen du, lan taldeetan oso giro ona sortzen dela eta horregatik ere asko direla urtetik urtera edota lekua izatekotan, bi ikastaroak jarraian egiten dituzten herritarrek.

"Hala ere, aitortu behar da gizonik ez dela animatu hau egitera eta gazte jendea ere gutxi etorri dela. Aurten gustatuko litzaiguke mutilak eta gazteak animatzea".

Irakaslearen laguntza

Baserritar jantzia egiteko oihalen aukeraketan laguntza ere badute ikasleek "irakasleaz gain, taldean lan egiten denez, kideen artean laguntza ere ohikoa da".

"Joskintzan lehen urratsak emateko aitzakia polita da" dio Mujikak, "asko ikasten da eta gainera bukaeran, astero-ko lanaren emaitza ikusteko aukera du ikasle bakoitzak".

Aipatu behar da ikasleek erabakitzen dutela zein jantzi egin "batzuek eurentzako jantzia egiten dute eta beste



laz ikastaroa egin zuten kideak oso pozik agertu ziren egindako lanarekin.

batzuek berriz, seme-alaba edota bilobentzat. Trebeziaren arabera, ikastaroan denbora emango die jantzi osoa egitea edota pieza bakarra, alkandora, gona...".

Izena eman

Dagoeneko izena emateko aukera dago Ttakuneko bulegoan. Elkarteko bazkideek 22 euro eta ez bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte.

Informazio gehiago eskuratu edota izena emateko, 943 371 448 zenbakira deituzte.



Taldean egindako lanetako bat da mutil jantzi hau.

Plaza dantza saioak urritik aurrera

Ttakun Kultur elkarteak urte batzuk daramatza muxiko edo plaza dantzak sustatzen eta jarduera honek duen arrakasta ikusirik jarraipena emango dio ikasturte honetan ere.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, urrian hasiko dira saioak, baina aurrez bilerara bat egingo da irailaren 27an, 20:00etan, Sasoetako ikastetxeko gimnasioan.

Honetan ikastaroaren nondik norakoak azalduko dira, bi saio ezberdin daude eta. Hastapeneko taldeak asteartean egingo du dantza eta asteazkenetan, aurrez dantzatu dutenei zuzendutako saioa egongo da.

Saioak Sasoetako ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik 21:30era.

Era berean, bileran ikaslearen proposamenak ere jasoko dituzte.



Muxiko edo plaza dantzetan trebatzeko aukera eskaintzen du Ttakun KEk.

Antolatzaileek aurreratu digutenez, "aurrez dantzatu dutenen taldean aurten dantza zailagoak egingo dira".

Dabid Egizabal eta Javi Fernandez de Lezea izango dira aurten ere saioak gidatuko dituzten pertsonak.

Antolatzaileek taldeko kide eta interesa duten herritarrei bilerara hurbiltzeko deia egiten diete.

Hilabeteko hitzordua

Hala ere, antolatzaileek azpimarratu dutenez, ikastaro hauetara joan ezin direnek ere aukera izango dute muxiko edo plaza dantzez gozatzeko. Izan ere, aurreko urteetan lez, hilabeteko laugarren igandean dantza saioa egingo baita Okendo plazan. Iraileko hitzordua 25ean da, 12:00etan.

MUGIKORTASUN ASTEA

Bigarren eskuko bizikleten azoka ostiralean

Mugikortasunaren Europako astea dela eta, irailaren 16an, ostiralean hainbat ekintza antolatu dira Lasarte-Orian, horien artean bigarren eskuko bizikleten azoka.

Ekimenaren antolatzaileek azaldu dutenez, herritarrek bizikleta edo mugikortasunarekin lotutako objektuak utzi ditzakete azokan eta bertako teknikariek salduko dituzte. Ohartarazi dutenez, ez da 300 euro baino gehiagoko salneurririk onartuko.

Era berean, saltzaileek bizikletaren jabe direla egiaztatzen duen agiri bat sinatuko duela jakitera eman dute, "honela lapurtutako bizikleten salerosketa saihestuz". Saltzaile zein erosleek NAN aurkeztu beharko dute.

Azokari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi duenak, 943 670 249 telefono zenbakira deitu dezake.

ZIENTZIA

Zientziakide proiektua martxan

Zientziakide proiektuan izena emateko epea ireki da. Elhuyarrek bultzatutako ekimen horren bidez, AZTIko iker-tzaileekin batera ikerketa batean parte hartzeko aukera eskaintzen zaie herritarrei. Lehen ikerketa Pasaia badiako uraren kalitatea neurtzea du helburu.

Parte hartu nahi dutenek dagoeneko eman dezakete izena zientziakide.elhuyar.eu webgunean edo Elhuyarrera telefonoz deituta, 943 363 040. Izena emateko epea irailaren 26an amaitzen da.



Pili Fernandez, 'Virgen de Guadalupe' egoizako kidea, ama birjina eskuetan duela.



Larunbat eguerdian, Guadalupe Ama Birjinaren omenezko meza ospatu zen, 'Virgen de Guadalupe' egoitzan.



Goizetik hasi eta arratsaldera bitartean, haurrentzako jokoan izan ziren Jaizkibel Plazan



Haur eta gaztetxoek bizkarrak astindu zituzten buruhandiek.

Festa giroko asteburua

Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak

Irailak zortzigarrena Guadalupeko Ama Birjinaren eguna izaki, jai giroan igaro du herriko 'Virgen de Guadalupe' Extremeña Elkarteak asteburua. Ostiralean eman zioten hasiera hiru eguneko egitarau zabalarari eta adin, zein gustu guztietarako ekintzez beterik igaro dituzten ostiral, larunbat eta igandea.

TXINTXARRI

Udari azken egunak gertzen zaizkio jada eta berarekin batera eraman ditu, hilabete eguzkitsuetan zehar hainbat herri eta auzoetako festa eta ospakizunak. Baina eguneroko errutinan murgiltzen hasi garen honetan, festa giroan igaro du herriko 'Virgen de Guadalupe' Extremeña Elkarteak asteburua. Ostiraleko bandera igotzearekin batera hasi zituzten ospakizunak eta hiru eguneko festa egitarau zabala izan da Sasoeta auzoan. Askotariko gustu, zein adin ezberdinetako herritarrei zuzendutako

ekintzez gozatzeko aukera paregabea izan da. Ostiralean, esaterako, afari herrikoa eta Rock gaua izan zen Extremeña Elkartearen. Larunbatean berriz, eguerdiko 12:00etan, 'Ecos de Monfragüe' kantari-taldeak lagunduta, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko meza egin zen, egoitzan bertan. Aurretik, etxeko txikienek ere izan zuten egunaz gozatzeko aukerarik. Haur-jolasak izan zituzten goizeko 11:00etan hasi eta arratsaldeko 17:00ak bitartean. Arrautza-jokoan, aulki-lasterketan, lokotx bilketan eta sokatiran aritu ziren, besteak beste, Jaizkibel Plazan bilduta-

ko haur eta gazteak. Goizeko ekitaldi horien ostean, indarrak berreskuratu asmoz, bazkari herrikoa egin zuten arratsaldeko ekintzekin hasi aurretik. Lauretan, Nilson Olivaresek zuzendutako Karaoke saioan aritu ziren eta Mus Txapelketa ere antolatu zuten, mahai-joko zaletuenentzat. Bigarren festa egunari agurra emateko, 'Raices y Brotes' taldeak musika emanaldia eskaini zuen, iluntzeko 19:00etan eta elkarteko kideen arteko afari eder baten ostean, salsa, merenge eta pasodoble doinuak dantzatzeko aukera izan zen. Igandean ere, festaz gozatzeko aitzakiarik ez zen falta izan. Bezperako parrandatik errekuperatzeko tarte hartuta, eguerdian, 'Zambra' taldeak, kontzertua eskaini zuen. Herri-bazkaria izan zen eguerdian eta asteburuari agur esan aurretik, iluntzean, bola-joko txapelketa antolatu zuten.



Iruñeako 'Raices y Brotes' taldeak, musika eta dantza emanaldia eskaini zuen larunbat iluntzean.



Udaleko ordezkariak, 'Virgen de Guadalupe' egoitzan, bazkideentzako antolatutako afarian izan ziren.



Irten armairutik! (1)

Erronka Euskararen Maratoia hasi aurretik

1986-2016:
40 ordutik 40 egunera

30 urte pasa dira Maratoiaren lehenengo edizioa egin zenetik. Orduan, herritar talde batek 40 ordutan euskaraz aritzeko erronka eraman zuen herriko plazara. Hasierako zailtasunak gainditzen joan da Maratoia edizioz edizio, izan ere, euskararen ezagutza herrian handitzearekin batera, erabilera ere hazten joan da urte guzti hauetan. Horrela izanda, 40 orduko erronka gaindituta eta herriko egoera linguistikoa ere aldatuta, aurtengo Maratoia prestatzeko garaian, zerbait desberdina egiteko gogoaz azaldu zen sustatzaile taldearen baitan.

Lutxo Egiak Bilbon egindako performancea edota Egi eta Añorga auzoetan burututako ekimenak aztertu ondoren, Baietz 40 egun euskaraz! erronka berria jaio da gure herrian. EHUko irakaslea den Pello Jauregiren laguntzaz, agian inoiz egin den euskarazko hizkuntza-ohiturak indartzeko ekimen antolatutako handienaren aurrean gaude lasarte-oriatarak. Zertarako? Euskara gehiago erabiltzeko.

Informazioa: 40egun.euskararenmaratoia.eus, Ttakun Kultur Elkarte (943 37 14 48) edo Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

Izen-ematea

40 Eguneko erronkan parte hartzeko, Euskararen Maratoia baino lehen izena eman beharko da, lehenengo txanda maratoiko betiko 40 orduak amaitu bezain pronto hasiko baita.

Parte-hartu nahi duten herritarrek, Ahobizi (euskal hiztunak) edo Belarriprest (euskara ulertu eta beraiekin euskaraz egitera animatzen gaituztenak) izango diren erabaki beharko dute.

Izen-emate orriak, parte-hartzeko beharrezko informazioarekin eskuragarri daude Udaleko Euskara Zerbitzuan, Ttakun Kultur Elkartearen eta herriko hainbat komertzioetan.

40egun.euskararenmaratoia.eus-en ere, on-line izena emateko aukeraz gain beharrezko informazioa eta bideotutoriala daude ikusgai.

Animatu eta eman izena!!!



Erronkametroa

Uda hasieratik, udaletzeko balkoian "Belarri metroa" eta "Ahobizi metroa" ikusgai daude. Hauen bidez herritarrek erronkan parte hartuko duten pertsona kopuruaren berri izan dezakete.

Herri-erronka gainditu dugula esango dugu baldin eta lortu badugu 300 Ahobizi hartan jardutea eta beren konpromisoa %80an betetzea.

Horrez gain, 3.000 Belarriprest hartan jardutea lortuko bagenu, orduan esango genuke erronka gainditzeaz gain nota bikainarekin gainditu dugula.



Solaskide programan izena emateko epea ireki da

Solaskide programaren ikasturtea martxan da Lasarte-Orian. Euskarazko mintza praktika egiten duten hainbat talde bildu dira dagoeneko. Hala ere, Naiara Mujika programaren kudeatzaileak azaldu duenez, "hauetan parte hartu edo talde berriak sortzeko aukera dago urria amaiera arte".

Bidelari eta bidelagun

Euskararen erabilera sustatzen duen programa berezi honetan bidelari eta bidelagunek parte hartzen dute.

Bidelariak euskaldun berriak izan ohi dira eta programaren bitartez, hizkuntza ulermena eta mintzamenaren hobetzeko aukera dute.

Bestalde, bidelagunak edo euskaldun zaharrak bidelari bidea egiten laguntzen dieten pertsonak dira.

Solaskideko arduradunaren hitzetan, "bidelariak ez ezik, bidelagunak ere behar dira".

Lagun giroa

Lagun giroan egiten dira saioak, bikoteak edo taldeak osatzen dira eta haiek eraba-

kitzen dute praktika nola eramango den aurrera, "batzuk paseoak ematen dituzte, beste batzuk kafe baten bueltan egiten dute solasaldia".

Gainera, saio hauetaz gain, hiru hilabete behin Solaskide programako kide guztiak batu eta afari bereziak antolatzen dira.

Izena ematea

Ttakun Kultur elkarte arduradunek herritarrei bidelari edo bidelagun izatera gonbidatzen dituzte. "Ez galdu aukera euskaraz trebatzeko".



Ikasturteari hasiera emateko Solaskide programako kideek afari gozoa dastatzen dute

Interesa duten herritarrek Ttakun kultur elkarte bulegora hurbildu edo 695 785

389 telefono zenbakira deitu behar dute urriak 30a baino lehen.



elduaian
hizkuntzaeskola · academia de idiomas

- Hizkuntzak ikasteko teknologia berrienak eta interneta barneratu ditugu gela guztietan
- Behar duzun tokian eta nahi duzun ordutegian ikasi: aurrez aurre, online edo Skype bidez
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza onena
- Ikastetxe eta enpresentzako formakuntza
- Atzerrian ikasi eta bizitzeko programak

943 67 47 33 - 943 31 07 53 elduaien@elduaian.com www.elduaian.com

Zatoz gure berritasunak ezagutzera!



Eskolak: Tolosa (4) • Donostia (3)
Lasarte (2) • Urnieta • Andoain
Villabona • Beasain • Alegia

MENDI-LASTERKETAK.-

Esperientzia ahaztezina, hasi eta buka

Javi Olazagoitia eta Gorka Mateo herritarrek Ultra Trail Mont Blanc entzutetsua burutu dute

Frantzia, Suitza eta Italiako lurak egun gutxitan zapaltzeko modu bat baino gehiago dago. Javi Olazagoitiak eta Gorka Mateok erabilitako bidea ez da izan erosoena, baina zirrargarriena bai, ziurrenik. UTMB proba ezagunean aritu ziren abuztu bukaeran. Esperientzia ahaztezina, hasi eta buka.

IÑIGO GONZALEZ

Munduko Ultra Trail proba entzutetsuena da Mont Blanc-ekoa. Ospe hori ongi irabazita dauka, udara honetan lasterketa hori hasi eta buka egin duten bi herritarrek kontatzen digutenez. Javi Olazagoitia eta Gorka Mateok egin dute balentria.

Frantzia, Suitza eta Italiako lurak egun gutxitan zapaltzeko moduetako bat da UTMB proba egitea. Hori, ordea, ez dago edonoren esku: mundu osotik joandako 2.500 lasterkari inguruk ekin zioten abenturari Chamonix-eko helmugatik, abuztuaren 26an. Erroka ederra zuten aurretik: 170 kilometroko ibilbidea, 10.000 metroko desnibel positibo metatuarekin.

Helmuga Chamonix-en bertan zegoen, baina parte-hartzaileen ia %40ak ez zuen amaitu proba. Bi herritarrek bai, ordea: 34 ordu, 47 minutu eta hamar segundotan geratu zuen erlojua Mateok, eta 35:50:18ko denboran Olazagoitiak. 195. eta 246. izan ziren, hurrenez hurren. Ez da ahuntzaren gauerdiko ezta.

“Kontentu nago egindako lasterketarekin: fisikoki ez nuen eduki arazo aipagarririk, eta ikaragarri gozatu nuen egin bitartean, paisaiekin-eta. Espero

baino gehiago gustatu zait”, dio Gorkak. Javik nolabaiteko sentimendu nahasketa dauka: “Oso pozik nago bukatu izanagatik, baina denbora hobea egin izan nezakeela uste dut, 140. kilometrorra arte 32 orduko erritmoan nindoalako. Orkatila bihurritu nuen orduan, eta sekulako ekaitz batek ere harrapatu gintuen; arropa dena aldatu nuen, zapatila eta galtzerdiak izan ezik, eta egosi egin zitzaizkidan hankak”.

Paisaia ikusgarriak

Bi lasterkariak nahikoa lan bazuten ibilbidean aurrera egitearekin, baina kilometroak egin ahala topatu zituzten paisaiez ere gozatu zuten.

Mont Blanc mendia Italiako aldeak deitu zion arreta gehien Gorkari: “Ikaragarri polita iruditu zitzaidan Bonatti eta Courmayeur babeslekuen arteko gunea; korrika dezente egin zitekeen, eta asko gozatu nuen”.

Javiri galdetuta, Courmayeurera jaitsi bitarteko egunsentia aipatzen du: “Paisaia benetan ikusgarriak zeuden han; merezi du joateak, turismo egitera besterik ez bada ere. Hori bai, oso garestiak dira gauzak; garagardo batek lau euro balio zituen!”.

Chamonix herria ere ederra dela diote biek, eta proba



UTMB egin bitartean ezagutu ziren Javi eta Gorka. Behekoetan, ezker-eskuin, Javi eta Gorka, proba burutzen.

hasi baino lehenagoko egunetan jada giro aparta zegoela.

Elkar ezagutzeko aitzakia

Bi mendi lasterkariak -lasarteoriatarrak biak, gainera- UTMB proban elkar ezagutzea baino hoberik ba ote dago? Ziurrenik ez. Horregatik, Gorkak eta Javik ez zuten aukera galdu.

Gorkak oroitzen duenez, 80. kilometroko hornidura

-gunean topatu ziren aurrenekoak. Geroago ere egin zuten topo, behin baino gehiagotan, nahiz eta bakoitzak bere erritmoan segi. Horietako geldialdi batean, tartetxo bat hartu eta argazkia ere atera zuten biek elkarrekin.

Hurrengoa, Hiru Handiak

Denbora bukatu aurretik, etxetik gertuko mendi laster-

keta bat burutuko dute Javik zein Gorkak: Gorbea, Anboto eta Aizkorriko gailurrak igaroko dituzte urri erdialdean, Hiru Handiak proban.

“Lasterketaz gozatzera noa, denboraldia lasai bukatzeko asmoz”, zehaztu du Gorkak. Javik ere emanda dauka izena, baina orkatila osatzeko fisioterapia saioak ari da jasotzen. Halere, iristea espero du.

OSTADAR SKT.-

Touurreko porrako sariak eskuragai

Ostadar SKTk jakinarazi duenez, Frantziako Touurreko porran sariaren bat eskuratu dutenek ostiral honetara arteko tartea daukatela horiek jasotzeko, elkarrekin Geltoki kalean daukan lokalean. Sari bila 16:00etatik 20:00etara arte pasa ahalko dira.

Iragan asteko asteazkenean zuten hitzordua sarituek, baina pertsona bakarra agertu zenez, sariak lokalean jasotzeko aukera ematen du orain Ostadarrek.

‘Belarrimotx’ boletoa izan da Italiako Giro eta Frantziako Touurreko emaitzak batuta puntu gehien bildu dituenak: 1.148 guztira. Hortaz, 1.000 euro irabazi ditu.



Frantziako Touurrari dago-kionean, lehenengo bi boletoek ere izen bera dute: ‘Belarrimotx’. Denera 540 euro irabazi ditu.

Horrez gain, zortzi urdaizpiko ere banatu ditu Ostadarrek: ‘Erlojukontra’, ‘Joxema

Aranzabe’, ‘lara’, ‘27-4-2016’, ‘Sercalfre’, ‘Gu Gattunk’, ‘Txemix’ eta ‘Ventura’-ri dagozkie.

Taberna irabazlea, berriz, Avenida izan da, 16.911 punturekin. Txartel Txoko jate-txean bi pertsonentzako afaria da saria.

ERRUGBIA.-

Beltzak Errugbi Eskolak ostiral honetan ekingo die entrenamendu saioei, Michelingo zelaian

Errugbiaren munduan murgildu nahi duten gaztetxoek ostiral honetan edukiko dute aurreneko aukera. Michelingo zelaira joan beharko dute, 18:30ean, kirola egiteko arropa eta multitakodun botekin. Entrenamenduek ordu eta erdi iraungo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, doakoa da eskolan izena ematea.

Norbaitek zalantza edo galderarik baldin badauka, hurbildu daiteke Michelinera bertara ostiralean, eta eskolako entrenatzaileei zuzenean egin kontsultak.



Agenda

Ostiraletik igandera, Okendo Plazan



Done Jakue bidean barrena

Lasarte-Oriatik Kostaldeko Done Jakue bidea igarotzen da. Hori dela eta, I. Xacobeo azoka antolatuko da asteburuan. Kalejira, haurrentzako tailerrak, antzerkiak, ipuin-kontalariak, txotxongiloak, artisautza postuak edo pulperia izango dira, baita ikuskizunak ere.

Igandea 18

11:00etan, toka txapelketa.
12:00etan, hamaiketako txosnan.
14:00etan, herri bazkaria.
17:00etan, Gorritiren showa.
Ondoren, buruhandiak.
19:30ean, piper dastaketa.
21:00etan, festen amaierako traka.

Bizipozaren jaia

FRONTOIA, DEMA PLAZA ETA MIKEL LABOA PLAZA
Igandea 25, 10:00etatik 18:00etara
Bizipoza Elkarteak eta Usurbilgo hainbat eragilek Bizipozaren Jaia antolatuko dute. Bizipoza Elkarteak osatzen duten elkarten topaketa, 'Amalur' ikuskizuna, jolasak, antzerkiak, puzgarriak, tailerrak, musika... denetarik izango da.

Astigarraga

Solasaldia

KULTUR ETXEA

Asteartea 13, 18:00etan

Arantxa Urretabizkaia euskal idazle eta kazetariarekin solasaldia egingo da.

Hernani

Dokumentala

ORONA FUNDAZIOKO ERAIKINA

Asteazkena 14, 17:30etan

'Euskal Baleazaleen triskantza' marrazki bizidun eta animazioko dokumentala eskainiko da. Dokumentala duela 400 urte Islandian erahilak izan ziren 32 euskal bale arrantzaleei buruz da. Joan nahiez gero, aarruti@orona-fundazioa.org edo 943 33 55 88 telefonoan erreserba egin behar da.

Lasarte-Oria

Stock Azoka

ATERPEAKO DENDAK

Ostirala 23

Aterpea Merkataria elkarteko hainbat komertzioetan Stock Azoka izango da. Arropa, jostailuak... pagotzak aurkitzeko aukera izango da.

Usurbil

Gerra zibila: 80. urteurrena

SUTEGI KULTUR ETXEA

Osteguna 15, 19:00etan

'Memoria eta azarnak' hitzaldia eskainiko da. Pako Etxeberria eta Lourdes Errazti Aranzadiko kideek eta Joxean

Muguruza Islada Ezkutatuak elkarteko kideak. Aitzaga elkarteak antolatuako jardunaldia.

TXALDATXUR

Larunbata 17, 9:00etan

Usurbildik aterata Txaldataxurreko lubakietara irteera.

ASKATASUNA PLAZA

Larunbata 17, 13:00etan

Zigortu eta gudarien 'oroitzapen ekitaldia'. Aitzaga elkarteak antolatua.

Santueneako Jaiak

SANTUENEA AUZOA

Ostirala 16

17:00etan, txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada.

Ondoren, globo gerra.

18:30ean, buruhandiak eta Batukada edo elektrotzaranga.

19:00etan, sardina jana.

23:30ean, kontzertuak: Zaparra, Los Zopilotes Txirrius eta Gaitzerdi Erromeria.

Larunbata 17

11:00etan, haur jolasak eta pintura lehiaketa.

13:00etan, buruhandiak.

14:00etan, haur bazkaria. Norberak bere bazkaria eraman, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira.

16:00etan, mus txapelketa.

16:00etan, haurrentzako puzgarriak.

17:30ean, txokolatada.

19:00etan, buruhandiak.

20:30ean, kantu Afaria.

00:00etan, dantzaldia DJ Aros-ek girotua.

Herritarren txokoa

Udako Txoko eta kanpaldieetako arropa

Ttakun K.E.ko Aisia sailak jakin arazten du, Udako Txoko edo Donemiliaga eta Albeniz udalekuen ostean jasotako arropa Ttakuneko bulegoan esku-ragarri dagoela.

Jertseak, txaketak, kamisetak, amantalak, galtzak... irailaren 12tik 23ra jaso ahalko dira bulegoko ordutegian: astelehenean arratsaldeko 16:30etik 19:30era, asteartetik ostegunera goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 16:30etik 19:30era eta ostiraletan, goizez bakarrik 09:00etatik 13:00etara.

Neguko ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, irailaren 1ean ezarri zen neguko ordutegia herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenean ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenean ostiralera arratsaldez egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahalko dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzete, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Sarean

Software librearen erabileraren aldeko kanpaina

Teknologia berrien hainbat erabiltzaileek euskal administrazioek software librearen erabilera sustatzeko "Jendarte askeak, software libre" kanpaina jarri dute abian eta gizartearen babesa lortzeko sinadura bilketa jarri dute abian softwarelibreanahidugu.eus web orrialdean. 500 bat norbanako, erakunde eta eragilek egin dute bat dagoeneko.

Web orrialdean dagoen manifestuan haiek babesten dituzten post puntuaz irakurtzeaz gain, Eusko Jaurlaritzari eta beste euskal administrazio publikoei egindako eskaera ere plazaratu dute. Honek zazpi puntu ditu, hala nola, pertsonen Administrazioekin dituzten harreman guztietan, Software Libre era aktiboan bultzatzea eta sustatzea, software Librearen erabilera erakunde publiko guztietan eta jendartearen arlo guztietan ezartzea, aurrekontuetan Software Librearen, Teknologia eta Estandar irekien eta Sare Askeen garapenean inbertitzea edo software Librearen esanahia jendartearen zabaltea eta bere abantaila eta onura antzaz hedatzea.

Honetaz gain, proiektuak beste zati bat ere badu, lehendakari gaiei software librearen inguruan izango duten jarrera modu zuzenean galdetu diete. Izan ere, azaltzen duten moduan "Irailaren 25ean Euskal Autonomia Erkidegoan burutu behar diren hauteskunde autonomikoak ikusgai, softwarelibreanahidugu.eus plataformako kideek lehendakari zarako hautagai diren guztien jarrera ikusi nahi izan dugu".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Emaitza buelta bat zure munduari euskararekin 2016-17



IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia
Munterri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egin izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

**ONDO
iBiLi!**

Informazio gehiago
Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

30 urtez zuekin

**IRAILAREN 14an ETA 15ean
ATE IREKIAK
UDAL EUSKALTEGIAN**

Zatoz eta ezagutu gure egoitza eta ikastaroen eskaintza!
Egin ezazu sarrera proba eta jakin zein mailatan zauden.

BULEGO ORDUTEGIA: 09.00-19.15

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura)

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



97€

2 mō betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
School Visual TEST-a
(UMEEI zuzendutako proba bereziak)

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR
ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan